# D ereduak gora jarraitzen du Iparraldean

Iparraldean ez dute orain aurrematrikulazio kanpainarik egiten. Hala ere, euren irakaskuntzaren informazioa helarazteko irudi kanpaina egiten dute. Iaz egindako irudi kanpainak euskarazko irakaskuntza aldarrikatzen zuen, Mixel Etxeberri Seaskako lehendakariak adierazi digunez: «Euskarak bizi behar duela azpimarratu nahi genuen; bigarren ardatza elebitasuna zen, gure ikusmoldetik, hots, murgiltze ereduaren bidez». Hain zuzen, murgiltze eredua (D eredua) erabiltzen dute euren ikastetxeetan. «Ama ikastola eta lehen urtea euskaraz egiten dira, eta bigarren urtean frantsesa irakasten hasten gara», azaldu digu Etxeberrik. Egun, 1.951 ikasle daude ikastetxe hauetan, Iparraldean eskoletan dauden haurren %6. Urtero kopurua gora doa; «nahiz eta gure ustez mantsoegi, beti aitzina», Seaskako lehendakariaren hitzetan.
Euskaraz irakasteko arazorik ez dagoela azpimarratu digute Seaskatik; izan ere, irakasle prestatuak eta talde pedagogiko dinamikoa dute. Dena dela, arazo nagusia ikas materialaren oinarria dute, bereziki 2. mailan, irakasleek euskarara itzuli behar izaten baitituzte liburuak.
Diru laguntzei buruzko azalpenak ere eman dizkigu Mixel Etxeberrik: «Irakasleak estatutik ordainduak dira; lehen mailetan, udaletatik jasotzen dute dirua, eta bigarren mailetan, estatutik eta departamendutik; laguntza horiek haur kopuruaren arabera kalkulatzen dira».


AMAIA ZABALO
▪▪▪ Hainbat ikasle, ordenagailuaren aurrean.

A, D eta G ereduak daude: A (gaztelaniaz, euskara ikasgaia salbu), D (euskaraz, gaztelaniako ikasgaia salbu) eta G (dena gaztelaniaz).

Nafarroako heziketa sistemetako buruek adierazi dutenez, D ereduaren aldeko apustua egin dute; hori da hango heziketa prozesuaren erronkarik funtsezkoena. Dena den, A eta D ereduak dira gorantz doazenak Nafarroa.

Ricardo Ederrak Sortzen Ikasbatuaz-en ingurukoak aipatu ditu: «Aukera dagoen tokietan (eskualde euskaldun eta mistoetan) D ereduaren aldeko eskaera dago; bestela, A eredura jotzen dute. Beraz, eskualde ez euskaldunetan A ereduak izugarrizko gorakada izan du». G eredua, ordea, gutxiengo etnikoen esku geratzen omen da.

Joera bera ikus daiteke Nafarroako ikastoletan ere: «A eta D ereduen eskaera izugarri igo da ikastoletan, eta G eredua atzean geratu da», dio Pello Mariñelarenak. Oro har, helburua haurrak G ereduan ez sartzea da, modu horretara ez baitago haurra euskaraz alfabetatzerik.

"URRITXE-ZORNOTZA"
Bigarren Hezkuntzako Institutua
✓ D.B.H.
✓ Batxilergoak (Hiru modalitateak)
✓ Heziketa Zikloak

Erdi mailakoak
- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Merkataritza
- Elektromekanika

Goi mailakoak
- Aplikazio informatikoen garapena
- Nazio arteko merkataritza
- Ekipo industrialen mantendua

Informatikako gelak, laboratorioak, liburutegia, tailerrak, kirol instalazioak,...
Jantokia eta eskola-garraioa dadauzkagu ere.

Urritxe auzunea, z/g 48340 AMOREBIETA (Bizkaia)
Tel.: 94 673 02 51 / 20 12 Faxa: 94 673 02 51
www.educanet.net/zornotza • e-mail: info@urritxe.educanet.net

ANDRA MARI
Ikastola Kooperatiba
0 urtetik 16 urtera
HAURTZAINDEGIA
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
D.B.H.
Larrea Auzoa, z/g • ☎ 94 6732950 - Fax 946731308 - zornotza@ikastola.net
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)

TXANTXIKU IKASTOLA
Jaiotzetik Unibertsitaterainoko hezkuntza integrala
San Juan Kale, 1 - OÑATI - Tel.: 943 781204/782612/781356
Faxa: 943 783188 - E-mail: txantxiku@ikastola.net

ASSA IKASTOLA
"Ebro ertzeko lora"
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- DBH
- Batxilergoa
  • Giza eta Gizarte Zientziak
  • Natur eta Osasun Zientziak
Helbidea: Tejerías kalea z/g
Telefonoa: 945 607 199 - Faxa: 945 12 73 16 - E-mail: assa@ikastola.net
Lapuebla de Labarka (Araba)

FLEMING IKASTETXEA
FLEMING BILLABONA IKASTETXEA
EUSKALDUNA, DENONA ETA DENONTZAT
• HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
2-6 urte ARROAN
6-12 urte ARRATZAINEN
• ESKAINTZA: Autobusa, jangela, informatika, baratza, kirolak, antzerkia.
• MATRIKULA EPEA:
Otsailaren 18tik Martxoaren 1era
Ordutegia: 9etatik 13etara eta 14:30etatik 17etara
☎ 943 69 14 13
VILLABONA

ONDARROAKO HEZKUNTZA ESKEINTZA INTEGRALA
0 urtetik - 2 urtera ESTIMULAZIO ESKOLA
HH - LH - DBH GAITASUNEN GARAPENA
Gazte eta Helduentzat ZIKLOAK ETA ITSASOKO KURTSOAK
KALATXIPI HAUR ESKOLA Tel.: 94 683 32 15
TXOMIN AGIRRE IKASTOLA Tel.: 94 683 21 39
ARRANTZA ESKOLA Tel.: 94 683 02 06
Eleizbarrutiko ikastolak:
· KALITATEZKOAK
· EUSKALDUNAK
· PLURALAK
· GEUREAK